

ELKARRI MOKOKA: Andrea Etxarri eta Mikel Hernandorena **Larraun Bizi:** Herri inkesta

ELKARRIZKETA: Mailope ehiza-barrutia **KUXKUXEAN:** Apirileko zorion agurrak

Ikusi
hemen
Mailope



issuu.com/mailopealdizkaria

Arrastoaren atzetik



Mikel Uharte (Baraibar)
Bertso berriak
Mailoperi jarriak



Mailope ehiza-barrutiko ehiztariekin izan gara amaitu berri den basurde, azeri eta orkatzen denboraldiaren ondoren.

Eta oraingoan asmakizun koloretsu batekin gatoz.
Asmatu beharreko bi galderekin:

“Elurra beltz eta ikatza zuri. Odola berde porrua gorri. Egia gezur gezurra egi... Metro bateko sudurra hazi zait niri. Zenbat gezur daude? Zenbat kolore entzun dituzu?”

Horra hor Atalluko Jakes Iturrioz Cruzek joan den hilean bidalitako marrazkia.
Denonartean Argitaletxeko liburu bat jasoko duzu opari Jakes! Zorionak!



Denonartean Argitaletxeak babestua.

Antsoñea
ARIDI LATAKAREN ESNE GORDINEZ
EGINDAKO GAZTA OINDUA
TF. 948 51 34 68 . antsoñeagaztak@gmail.com . Urtegi

Atabal
okindegia
Era askotako
ogiak eta gozoak
Etxez etxe
banatuko dugu
Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE
harategia

BERTAKO HARAGIA
Txistorra, txorizoa,
salteixkak,
sukaldaturako platerak.
Etxera eramateko
zerbiltua ere eskeintzen
dizugu.
Antigua Kalea N°7
31890 BETELU
Telf: 948 51 30 88
maiteharategia@hotmail.com

04> Iritzia

08> Luze: Leire Aranburu



10 > Mailope ehiza-barrutia

Basurde, azeri eta orkatzen ehiza denboraldia amaitu berri den honetan, Ibai Telletxea, Ruben Saralegi eta Iñigo Estangarekin izan gara.

15> Nor da nor?: Argazki zaharrak gogora ekarriz.



24 > Kirola

47 korrikalarik parte hartu dute aurtengo Txikito de Arruitzen ome-nezko Legoan. Proba nagusiko eskualdeko lasterkarien denborak bildu ditugu.

26> Larraun Bizi: Egindako herri inkestaren balorazioa.



28 > Sotil Garajea

Beteluko Xabi Sotilekin izan gara bere tailerrean. Kotxeen mekanikarekin lotutako zerbitzu guztiak eskaintzen ditu bertan.

30> Kuxkuxean: Apirileko zorion agurrak

31> Kontu txikiak

Mailope doan banatzen da honako herrietan:

Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

Argitaratzen du: Mailope Kultur Elkartea.

L.G.: NA 719/93

Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.

issuu.com/mailopealdizkaria

ERREDAKZIOA: Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Ainhoa Iriarte, Itziar Luri, Arantxa Mikeo, Alfredo Dufur, Nerea Urbizu eta Andoni Tolosa.

ARGAZKIAK: Labrit, Ander Prados, Ibai Telletxea, Vicente Iriarte, Juan Carlos Buldain, Monia Gastesi, Unai Ijurko, Sugo Etxarri, Mikel Huarte, Monika Gastesi, Laida Zabaleta eta Juan Antonio Garaikoetxea.

PUBLIZITATEA: Labrit Multimedia - 948 210 103 - mailope@labrit.net.

MAKETAZIOA: Mikel Azpilikueta.

TIRADA: 1.600 ale.

LEKUNBERRIKO UDALAK ATZERA BOTA DU POLIGONOA ZABALTZEKO PROIEKTUA

Joan zen azaroan Kalaxka elkarteak Lekunberriko Udalak industrialdea zabaltzeko proiektuaren berri eman genuen. Eta horrekin batera, guk jarritako alegazioak azaldu genituen. Zergatik alegazioak? Gure ustez bazirelako pisuzko arazoak holako asmoa ez onartzeko. Bat, oraindik ere baziren (eta badira) partzelak erabili gabe. Bi, Udalaren proiektuak ingurumen handiko lurak erabili nahi zituelako, eta errekatik gertu direlarik, urak har ditzakeenak. Hiru, Udalak herritarren parte hartzeko eskubidea urratua zuelako, 5/2015 lege forala ez errespetatuz.

Orain ezagutu dugu Lekunberriko Udalak onartu egin dituela Kalaxkak jarritako alegazioak eta, beraz, atzera egin du hasierako proiektuan. Pozten gara erabakiarekin. Baina honek guztiak zer ikasi ematen digu bai herritarroi bai udaletan aritzen diren alkate eta zinegotziei. Udalek kontu handiagoz jokatu beharko lukete holaxeko egoeratan: presarik gabe arituz, interes partikularrak alde batera utzita, herritar guztien iritziak entzuteko prozesuak martxan jartzen eta, enpleguari bai baina ingurumenari kalte txikiak ekartzen dituzten erabakiak hartuz.

Bukatzeko, industrialdea biziberritzeko helburuari dagokionez, Kalaxka elkarteak gogoratzten ditu guk emandako ekintza eta betebeharren proposamen zahatzak. Hutsak dauden lur eta erakin pribatuak berpizten ahailegindu eta eremu publiko libreak berreskuratu; bertako proiektuei lehenetsuna eman eta industrialdeko balio ekologikoa handitzearen, bere azpitik pasatzen den erreka azaleratu. Horrekin batera plan integral bat eskatzen diogu Lekunberriko Udalari, ez suntsitzeko balore ekologiko handia dituzten lurak.

Larraun, 2016ko martxoak 8

kalaxka@gmail.org

LARRAUN BERDINTASUNETIK ERAIKIZ

Martxoaren 8ko eguna pasa da. Egun horren bueltan hainbat ekimen egin dira gure artean eta bere balioa eman behar diegu. Hala ere, martxoak 8 data bat baino gehiago da. Akuilu bat da berdintasunaren alde lan egin dezagun egunero, urte osoan. Horregatik sortu da Larraun berdintasunean ekimena:

oraindik urruti gaude emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreala lortzeki, eta gainditze aldera, asko dugu egiteko eta aldatzeko. Martxoan egindako ekimenetako batean Larraungo herri guztietan zapi moreak jarri genituen. Zer irudikatu nahi genuen horrekin? Larraun morez eta berdintasunean bizitzea nahi dugula, etorkizuneko herria eraikitzeko. Borroka horretan zer egin dezakegu? Zer egin zaintza lanak partekatuzko, emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatzeko, pertsonen arteko zapalkuntza, inposizioa eta mespretxua bukatzeko, eraso matxista txikiak zein handiak zokoratzeko, emakumeen protagonismoa eta eskubideak ziurtatzeko (kirolean, kulturean, lan munduan, etxean...)? Eronka latza dugu, baina erabat beharrezkoa da emakumeen eta gizonen artean harreman justuagoak eta berdinezaleagoak izan daitezen gurean. Gauzak horrela, gonbidapen bat egin nahi dizuegu: hurrengo apirilaren 15ean, arratsaldeko 19:00etan, Uitziko elkartearen egingo dugun hitzaldira eta tertulara etor zaitezten. AINHOA BEOLA etorriko zaigu, berdintasun arloan aditua den emakumea. Gure helburua oinarri bat jartzea da Larraun berdintasunetik eraikitzeko.

Larraun berdintasunean



Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi
mailope@labrit.net-era
hilaren 20a baino lehen.

asegurogintza
aseguru
aholkulariak
**Zure ondarea
eta segurtasuna
babesteko modu
bakarra behar bezela
aseguratua egotea da**
Telefona: 943652220. asegurogintza@aseguroak.net
Lizardi Olerkaria 1, 20400 Tolosa

Egin zaitetz bazkide!!

BIDEGOXO JATETXEA
Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak
Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 576
info@bidegoxo.com

LARRAUNGO UDALAK ONARTUTAKO MOZIOA:

2016ko Martxoaren 8ko adierazpena.

Erabakia:

- 1.- Larraungo udalerriko Osoko Bilkurak konpromisoa hartzen du 2017, 2018 eta 2019ko aurrekontu orokorretan "berdintasun partida" sortzeko.*
- 2.- Larraungo udalerriko Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du herriko emakumeen errealitatea ikertu eta ezagutarazteko ikerketa beka abian jartzeko.*
- 3.- Larraungo udalerriko Osoko Bilkurak konpromisoa hartzen du Emakume eta Gizonen berdintasunerako Ordenantza lantzeko, herriko emakume eta talde feministekin elkarlanean.*
- 4.- Larraungo udalerriko Osoko Bilkurak, konpromisoa hartzen du sortzen dituen idazki guztietan hizkuntza ez sexista eta inklusiboa erabiltzeko.*
- 5.- Larraungo udalerriko Osoko Bilkurak konpromisoa hartzen du Biolentzia Matxistaren kontrako protokoloa landu eta abian jartzeko, herriko emakume eta talde feministekin elkarlanean.*
- 6.- Larraungo udalerriko Osoko Bilkurak, dei egiten du emakume eta talde feministek deitutako mobilizazioetan parte hartzeko.*
- 7.- Mailope aldizkariari, Aralar irratitari eta Larraungo Kontzejuei erabaki honen berri eman.*

- 5 -

JoandakoakGogoan

"Zuhaitz bezala lurrian, kantuak bezala haizean..."



NIEVES MADOTZ AZKUE (89 urte).
2016ko martxoaren 13an zendu zen Iruñean.

"Gure hitzak esan, berriz esan ez daitezela ahaztu, ez daitezela gal, elur gainean txori hankarinek utzitako arrasto sail ederra bezalaxe".

AMA ONARI

"Oroitzen zaitudanean, ama, sukaldean egoten zara, mahaia bostentzat ipinita, aulkian eseri eta leihotik begira, kristala lausotzen duen lurrina kendu gabe, eta ni -badakit- zeure begien ondoan nagoela".

Begiristain-Madotz familia

Bidali zure heriotz-agurra
mailto:mailope@labrit.net e-postara edo
dei ezazu 638 652 339 telefono
zenbakira eta agurtu itzazu zendu-
takoak aldizkariaren bitartez.

Bertso berriak

Mailoperi jarriak

Mikel Huarte (Baraibar)



*Zein duzu gustokoena
pago ala haritza
bat sutarako dugu
egurra du hitza
besteak berriz du
zura ta zurgintza
zain ditzagun denak
beraien bizitza*

*Haritza ta pagoa
gu biok bagina
Juankruz ez zen izanen
bizi atsegina
nahiz eta biak hartzen
arnasa berdina
munduan ibiltzeko
mugitu ezina*

Joana Zigandarentzako puntu:

Espainia aldean, urak mugituak

Oinak:

Aldaketa, berta, beta, beteta



Doinua: Xarmangarria zira

- 6 -



OTEGIK EZ DU FINALAURREKOETARA SAILKATZEA LORTU

Hodei Otegi ez zuen finalaurrekoetara pasatzea lortu joan den martxoan Oviedon jokatu zen Pista Estaliko Espainiako Txapelketan. Hala ere, bere bigarren marka egitea lortu zuen 7,63 segundorekin. Orain uztailean Granollersen (Katalunia) jokatu den 100 metroko probarako prestatzeari ekingo dio.



PLANTXATZEKO ZENTROA

Plantxatzeko zentroa irekiko dute apirilaren 4an Lekunberriko Aralar kaleko 24.enean. Arropa, maindireak, gortinak etab. Plantxatu eta paketatuturik eskainiko dute. Etxetik jaso eta etxera bertara bidaltzeko zerbitzua ere izanen dute. Gainera apirilean zehar %10eko behe-rapena egingo dute.



HAMABOST LAGUN IZOTZ-PISTARA

15 gaztek parte hartu zuten joan den martxoan Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuak eta Euskara Zerbitzuak izotz-pistara antolatutako irteeran. Hiru begiralerekin joan ziren eta ederki pasatu zuten arratsaldea DBH 2 eta DBH 3-ko ikasleek. Hurrengo ekimena apirilaren 23an antolatzea aurreikusten dute.


Lana eta bizitzaren arteko oreka



Andrea Etxarri

Aupa Mikel! Zer moduz? Ni lanez gainezka, eta lan munduan nire tartetxo egiten saiatzen. Hau honela, lehengo egunean telebista ikusten ari nintzela, “Salvados” programak azalduko lantza eta bizitza pertsonalaren arteko kontziliazioaren inguruko gaiak pentsarazten jarri ninduen. Momentu bat ikusteko aukera besterik ez nuen izan, baina interesgarria iruditzen zait hainbeste jenderi

eragiten dion gaia lantzea. Paradoxa bat dirudi, oraindik ere hainbeste langabezia dagoen herrialde batean, etxetik argitu



Mikel Hernandez

Kaixo Andrea!!! Ni ere nahiko lanpetuta unibertsitateko lanekin, baina era berean gustura, benetan etorkizunean lan egingo dudana (eta bion kasuan dugun) lanera bideratuta daudelako burutzen ari naizen ikasketak.

Zuk aipatzen duzunari erreferentzia eginez, motibazioa bai bizitzan nola lanean ezinbesteko baldintza dela deritzot. Hau da, bai lagunekin, bikotekidearekin, familiarekin... gaudenean nola lanean gaudenean, bertan ditugun gauza

“Ordu gehiago lan egiteak ez du beti lan hobea suposatzen”

baino lehen atera eta ilun dagoela bueltatzen den jendea egotea.

Aintzat hartu beharreko gaia dela diot belaunaldi guztiak eragiten dituen arloa delako. Lehenik, ordu gehiago lan egiteak ez dakar beti lan hobetik. Esaten zuten moduan, Espainian Alemanian baino 300 bat ordu gehiago lan egiten dira, hala ere produktibitateari dagokionez behereko postuetan egonda. Ziur aski eragile asko egonen dira emaitza hauen atzean, baina ezin dugu ahaztu norberaren motibazioak eta lan egiteko malgutasuna efizientzia hobetzea dakartela, lan ordu horien aprobetxamendua hobetuz, lanari zentzu bat aurkituz, orduak beteazatik besterik ez betez.

Bestalde, ezin dugu ahaztu ez garelako izolatatuak, eta bai familia- bizitza zein bizitza sozial egoki bat aurrera eraman ahal izateko, beharrezkoa dela kideen arteko ordutegien akordio bat egotea. Ez du zentzurik pertsona askok (gehienetan emakumeak, zoritxarrez) haien familia ardurei erantzuteko nahiarekin zenbait lan uko egin behar izatea.

Azken finean elkarreraginean dauden bi alderdi dira profesionala eta pertsonala, beraz batean lortzen ditugun hobekuntzek bestean onurak eragingo dituzte, eta alderantziz. Ikuspegi aldaketa bat beharrezkoa dela iruditzen zait, honetarako eragile guztien akordio bat beharrezkoa izanik. Guztion onurarako litzatekeela iruditzen zait. Hala ere, ezinezkoa da aurrera egitea atzetik lotzen gaituen soka badugu.



“Motibazioa ezinbesteko baldintza da”

positiboetarako atera behar diegu. Izan ere, ezer falta ez zaigun gizarte batean bizi gara, pribilegiatuak izanik, eta badirudi lana ez gustatzeaz gain, kopetilun jartzen garelako eta guztia ilun ikusten dugula. Honi lotuta, aipatu nahiko nuke lana guri gustatzea ezinbesteko baldintza dela gure ongizate pertsonala ona izan dadin, bai arlo profesionalan nola bizitzan pertsonalean. Nire kasuan, duela urte batzuk ez nekien zer ikasi, baina futboleko gaztetxo talde bat entrenatzen hasi nintzen eta hor konturatu nintzen etorkizunean irakasle izan nahi nuela. Azkenean, egiten ditugun ekintzei zentzu ona ateratzen badiegu, horrek pertsona bezala hazi eta hobetzen gaitu.

Bestalde, kideen arteko ordutegien akordioari dagokionez, erabat ados nago aipatzen duzunarekin. Oraindik ere, nahiz eta aurrerapenak izan diren, gizon eta emakumeen arteko lan banaketan edota lan eskaintzan alde nabarmenak daudela ikusten da, bai etxeko lanen banaketan nola lan merkatuan. Azken finean, gizonen eta emakumeen berdintasunerako pauso nabarmen hori falta dela iruditzen zait.

Arlo profesionala garrantzitsua bada ere, arlo pertsonalak garrantzi gehiago duela deritzot. Hala ere, lanean pozik egoteak ekarriko digu bizitza pertsonalean ere ongi eta pozik egotea. Azken finean, pertsonak gara eta betebeharrak batzuk baditugu ere, bizitzeko eta disfrutatzeeko eskubidea dugula ere deritzot.



Leire Aranburu

LUZE

Guraso kontuez



- 8 -

Lehengo egun batean, lagun pare batekin hizketan nengoela, gaur egungo gurasoen gaia atera zen. Egia da, ni ez naizela ama eta agian gai honen inguruan esan dezakedanak norbaiti moles-tatu egingo diola, baita mindu ere, eta askok pentsatuko dute ez dudala hone-taz hitz egiteko eskubiderik. Hasieratik esan nahi dut, ez naizela ari kasu batez bereziki eta hau nire iritzia besterik ez dela, ez naizela orokortzen ari. Eta noiz-bait ama izaten banaiz ia ziur nagoela beste ikuspuntu bat izango dudala.

Gaur egungo gurasoak eta duela urte batzuetakoak ezberdinak dira, eta ez naiz ari duela ehun urteko garaiaz, duela hogeitahogei hamar bat urteko gurasoez ari naiz. Egia da urte hauetan gauzak asko aldatu direla, teknologia berriak sartu dira gure bizitzan, orokor-rean bizi erritmoa ez da berdina eta sozialki ere aldaketa asko izan direla.

“Gaur egungo gurasoak ezberdinak dira”

Honek birmoldaketa eskatzen duela badakit, denon aldetik eman behar den birmoldaketa eta horrek guraso berriak ez ditu alde batera uzten.

Baina honek ez luke gaur egun ikusten ditugun arazo askoren zergatia izan behar. Gurasoek, batzuetan ez diete seme-alabei behar beste kasu egiten, arazo txikienen aurrean askok laguntza eske jotzen dute. Zenbaite-tan txikiek nahi duten gauza bakarra atentzio pixka-bat da, eta horregatik sortzen dituzte iskanbilak edo izaten dituzte “kasketak”, askotan kontrolaezin bihurtzen diren arte. Eta zere egiten dute zenbaitek arazo honen aurrean?

Medikuarenera joan eta medikuari kontsultatu, gainera medikuak diagnostiko garbi bat ateratzen ez badu haserretu egiten dira. Ume asko dira hiperaktibitateaz diagnostikatuak, eta hau kontrolatzeko botika hartzen dutenak, baina horietako zenbatek behar du botika benetan?

Duela urte batzuk hiperaktibitatea zeukan umearen arazoa konpontzeko konponbidea bakarra zen, lasai utzi umea nekatzen zen arte, beste haurrek baino bi aldiz lasterka gehiago egin behar bazuen berdin zion, ume bat izaten jarraitzen zuen eta ez depresioak jota zirudien jonki txiki bat.

Baina hau ez da arazo bakarra, badira beste muturreko zenbait kasu. Kasu hauetan, gurasoek gehiegi babesten dituzte seme-alabak, beti gainean, beti larrituak, eta ezetzak ez dira beraien ahotik ateratzen, hauek ere ez dira kasu egokiak. Eta gero hara non, arazoaren aurrean nola jokatu oso ondo ez dakiten umeak eta gazte kapritxosoak.

Tarteko neurria aurkitu behar da, umeek arazo bat daukatenean lehenik eta behin berarekin hitz egiten saiatu, askotan hau nahikoa izaten da konponbidea emateko arazoari. Guk uste baina gehiago ulertzen eta sentitzen dutela batzuetan ahaztu egiten dugula dirudi. Honek ez du esan nahi gurasoek guztiari konponbidea eman behar diotenik. Gurasoek laguntzaile moduan jokatu behar dute eta haurrei beharrezkoak dituzten tresnak luzatu, beti ere benetan badira beharrezkoak. Une oro familiako partaide guztiak lankidetzatza bateratuan ari direla noski.

Umeei ume izaten utzi behar zaie eta beraien bidea eraikitzen lagundu, bidea inposatu gabe, umeak garenean hasten garelarako gure izaera moldatzen eta gu geu izaten ikasten.



Perfekzionismoa

Ni ez naiz perfekzionista. Inoiz ez naiz izan. Gauzak gutxi gorabehera egitearekin nahikoa izan dut beti. Batez ere, derrigorrez egin behar nituen gauzekin. Eskolako lanak bidaltzen zizkidatenean, asko motibatu behar ninduen zerbaitek arreta asko jartzeko eta oso ongi egiten saiatzeko, hori oso-oso gutxitan gertatzen zen. Berdina gertatzen zitzaidan barrutira belar biltzera joaten ginean, beti gelditzen zitzaidan izpi bat edo beste bildu gabe, ez nion garrantzi asko ematen... Aitaren desesperaziorako, ez nintzen gehiegi apurutzen...

Baina azken aldian egiten ari naizen lan batzuen ondorioz, ohartu naiz uste nuena baina perfekzionistagoa naizela. Hori bai, horretarako egiten ari naizenak mugitu behar nau, egiten dudan horrekiko motibatua egon behar dut eta emaitzak bere garrantzia izan behar du. Horrelakoetan, nire saiakera maila asko igotzen da, ondorioz lanaren ondorioa ere nabarmenagoa da, baina kezka maila ere nabarmen igotzen da.

Okerrena zera da, ohartu naizela, gauza batzuk, nahiz eta gustokoak izan, egin eta gaizki aterako zaizkidanaren beldurrarekin, ba ez ditudala egiten. Eta hori da perfekzionismoari ikusten diodan arazoa, hain zorrotza izan naitekeela askotan, ez egiteraino eraman dezakedala asmo eder bat. Ederra izan da honetaz ohartzea, nire jokaera hobeto ezagutzera bainarama. Baina aspalditik dudan jarrera denez, aldatzeko ez da batere erraza...

Barrutik asko mugitzen nauten zenbait ekintza, gustoko ditudan zenbait pertsona, egoera... Ekintza edo egin-nahie horiei aurre egitera ez naiz ausartu izan batzuetan, ondorioa nik nahi bezain "perfektua" izango ez zelakoan. Beste askotan bai, eta horren ondorioz bizitzako alderdi eta egoera garrantzitsu asko garatuak ditut, baina beste asko



“Perfekzionismoak egin-nahiak ez egitera eraman dezake”

ez. Orain horretaz ohartzea eta gabezia horiei aurre egitea da dudan egiteko

nagusienetako bat... Eta noski, ez dago bide perfekturik...

Eta nire buruari galdetzen diot, nondik dator perfektu egin behar hori? Eta erantzun batzuk baditut... Neurri batean, egiten dudan hori nire inguru gertukoan gustatzea uste dudana baina garrantzitsuagoa dela ohartu naiz, familiar, lagun artean... beraz, ohartu gabe, nire burua beraien larrutik epaitzen dut askotan, benetan haiek zer pentsatzen duten jakin gabe, nire irudimena eginez, eta okerrenea dena, egiten ari naizenaz ohartu gabe... Beti baitaude epaiak, askotan beldurretik... Hori egingo duzu? Ziur zaude? Ez dakit komeni zaizun...

Beste batzuetan eta indar handiz, gizartearen epailea da barrutik esaten didana egiten ari naizen hori ez dela nahikoa ona, edo hobea izan behar duela, edo barre egingo didatela... Ditugun lotsen zati handi bat handik eta hemendik jaso ditugun perfekzio kanonetara iristen ez garelako direla iruditzen zait... Modu batekoa edo bestekoak izan behar dugu, bestela, gure buruaz lotsatzen gara, eta ez dugu egiten... dantza, kanta, bertsoak, garen bezala izan...

Inguruan asko ikusten dut adierazten ari naizen oharkabeko perfekzionismo hau. Bakoitza ona garen horretan bakoitza ausartzen gara gizartean izaten, gure burua erakusten, ona ez bagara (gehiegitan oso onak izatea eskatzen diogu gure buruari!), ba ez dugu egiten, edo uste dugu guretzat ez dela edo... Ondorioz, zenbat benetako desio landu gabe? Baina bueno, ni nireez arduratuko naiz. Bakoitzak ikus dezala. Gauzak ongi egitea garrantzitsua da. Egitea garrantzitsua da. Eta garena errespetatzea ere, garen bezalakoak garelako, garena beldur gabe izanda izango garelako izan behar duguna. Hori da perfektua. Beste dena, asmakizunak. Aurrera!



“Ehizatutako ale kopurua baino gehiago, ehizatzeke modua baloratzen dugu”

- 10 -



Ibai Telletxea, Ruben Saralegi eta Iñigo Estanga Mailope ehiza-barrutiko kideak dira. Basurde denboraldia amaitu berri da eta beraiekin izan gara.

Zein ehiza-barrutitan ibiltzen zarete zuek?

Ibai: Gure ehiza-barrutiak Mailope izena du eta Errazkin, Betelu, Intza, Gaintza, Uztegi eta Azkaratekoak ibiltzen gara elkarrekin. Arribe eta Atallukoek beste ehiza-barruti bat dute.

Iñigo: 85 bazkide gara, baina denok ez dugu denetik ehizatzen, batzuk oilagorretan ibiltzen dira, beste batzuk basurdetan...

Oilagorrak, basurdeak... Zer gehiago ehizatzen da hemen inguruan?

Ibai: Basurdea, azeria, orkatza, usoa eta oilagorra.

Basurde denboraldia irailean hasi zen eta orain bi aste bukatu berri da. Zenbat lagun ibiltzen zarete basurdetan?

Ibai: 39-40 bat, baina batida edo uxaldietan 25 inguru elkartzen gara.

Gizonezkoak denak?

Ibai: Bai, oraingoz bai.

Iñigo: Emakumeren bat azaltzen da tarteka baina ez dakit izutu edo zer egiten diren...

Basurdeekin edo zuekin?

Iñigo: Ez, gurekin ez, gu lasai egoten gara! [Kar, kar, kar].

Eta aurtengo basurde denboraldia zer moduz joan da?

Iñigo: Bueno azkenen salbatu dugu. Lehengo urtekoa baino motelxeagoa izan da.

Ibai: Basurde gutxiago zen aurten hemen.

Iñigo: Orain arte oso negu epela egin du.

Ruben: Inguru hau zulo bat da eta guri elurra egitea komeni zaigu, elurrarekin behera jaisten baitira.

Baina elurrarekin ezin da ehizatu ezta?

Ruben: Ez, baina normalean goiko aldean elurtuta egon arren, gu beheraxago, elurrik ez den lekuetan askatasun osoz ibiltzen ahal gara. Hemen normalean, urte guztian ez dugu egun bakar bat ere galtzen elurragatik. Betelun, herrian bertan elurra gutxitan egiten du.

Eta zein parajetan ibiltzen zarete?

Iñigo: Hemen inguruan. Errazkindik hasita, Azkarateraino. Ehiza-barrutiko bazkide diren herrietako mendietan.

Arribe eta Atalluko ehiza-barrutikoekin arazorik edo pikerik izaten al duzue?

Ibai: Ez, elkar errespetatzen dugu eta kitto!

Iñigo: Lehen elkarrekin ibiltzen ginen.

Eta aurten zenbat basurde bota dituzue?

Ibai: Gutxi.

Ruben: Ehiztariak ez dute zenbakirik esaten, gero inbidiak sortzen dira eta deus ez da esan behar.

Ibai: Erdia eta okerka esan behar da.

Bueno zehazki ez bada ere bota kopuru bat!

Ibai: 30-40 inguru, hortxe.

Denboraldia hasiz geroztik astebururo ateratzen zarete?

Ibai: Garai batean larunbatetan eta



40 basurde inguru hil dituzte aurten. Arg: Juan Carlos Buldain.

igandetan uxaldiak egiten ziren eta denak ehizara joaten ziren. Gaur egun ditugun txakurrak basurdetan gehiago ibiltzen dira eta goizetan arrasto bila ibiltzen gara eta aurkituz gero arratsaldetan ehizara ateratzen gara.

Ruben: Horregatik, goizean zenbat eta jende gehiago atera eta zenbat eta kilometro gehiago egin, orduan eta aukera gehiago dituzu basurdetan egiteko. Baina astebururo joaten gara, larunbatean ez bada igandean, eta askotan bi egunetan.

Ze ordutan joaten zarete?

Iñigo: Goizeko zazpi eta erdietan ateratzen gara eguerdi bitarte ibili, gero bazkari-lege bat egin eta arratsaldean ordu bietarako berriz martxa.

Ruben: Goiz osoan arrastoa bilatzen ibiltzen gara sei bat lagun eta aurkituz gero, mezu bat bidaltzen diegu 40 pertsonari abisua pasaz eta eguerdian Arribeko surtidorean biltzen gara ehizara joateko.

Eta bakoitzak bere txakurra eramaten du...

Ibai: Txakur gabe ere joan liteke.

Iñigo: Baina bai normalean bakoitzak bereak eramaten ditu.

Denboraldia hasi aurretik txakurrak prestatu egiten dituzue?

Iñigo: Txakurrak horretarako ona behar du izan eta onak gutxi izaten dira.

Zein arrazatako txakurrekin ibiltzen zarete?

Ruben: Untxariak eta grifonak, arrastotan onak diren txakurrak.

Iñigo: Txakurrak berezkoa badu, agudo hasten da...

Eta behin basurdea ehizatuta?

Ibai: Arrastan kotxeraino eraman eta karron Beteluraino ekartzen da. Hemen Beteluko Udalarari lehengo harategi zaharra alokairuan hartzen diogu eta han larrutu eta txikitu egiten da basurdea.

Egunean bertan egiten da dena?

Iñigo: Bai, azkenean ehizan eguna joan egiten da. Oraindik ilun dela ateratzen gara etxetik eta ilunduta bueltatzen gara. Tarteka txakurrak ere desorientatu egiten dira eta haien bila ere ibili behar izaten dugu...

Aste osoan lanean ibili ondoren ez al zaizue nekeza egiten?

Iñigo: Gu gustura ibiltzen gara, etxekoak izaten dituzte komeri handiagoak gu bezalako kalamidadeak ondoan edukita!

Ruben: Gu aste osoa larunbata noiz iritsiko esperoan egoten gara!

Eta basurdearen haragia gero denon artean banatzen duzue?

Ibai: Basurdetara joan ohi garen 40 lagun horien artean sei laguneko zazpi talde ditugu osatuta. Gaur basurde bat botaz gero talde batentzat izaten da, bihar botatzen dena beste ba-

elkARRIZketa:

“Basurde ehizarako mendiak zikin egotea hobe izaten da”

tentzat eta horrela. Eta basurdea talde horretako kideek garbitu eta txikitu ondoren, beraien artean banatzen dute.

Ruben: Basurde txikiak normalean erre-
ta edo gisatuan jateko gordetzen dira
eta handienekin gehienetan txorizoak
eta txistorrak egiten ditugu.

**Basurde haragia gustatzen zaizue or-
duan...**

Ibai: Bai, bai.

Ruben: Txikiak oso goxoak ateratzen dira.

Iñigo: Eta handienak txerri urdaiarekin
nahasten dira batzuetan txistorrak egi-
teko eta txerriarenak bezain goxoak ate-
ratzen dira.

Ehizan ibiltzeko zer behar da?

Ibai: Segurua, arma baimena eta ehiza-
barrutiko txartela.

Ruben: Segurua urtero atera behar da.
Guk normalean 40 eurokoa ateratzen
dugu, horrek istripuak hartzen ditu bere
gain eta baita ehiza-egunetan txakurrari
pasa dakizkiokeen istripuak ere.

**Eta ehiza-barrutiko txartelarengatik
zenbat ordaintzen duzue?**

Ibai: 180 euro bakoitzak.

Zuen barrutian zein eremu da onena?

Iñigo: Dena berdintsua da hemen.

Ruben: Egun batean toki batean daude
eta beste batzuetan beste batean.

Istripurik izan duzue inoiz?

Ruben: Ez, orain arte horretan zortea
izan dugu. Hemengo bideetan autoeek
ere ez dute abiadura handirik hartzen
eta txakurra bidera aterata ere autoei
gelditzeko denbora ematen die. Gai-
nera, egungo GPSekin izugarritzko au-
rrerapena da, guk zehazki jakiten dugu
txakurra non dagoen, eta geldirik edo
mugimenduan dagoen.

Eta basurdeak nahi adina bota litezke?

Ruben: Bai denboraldiaren barruan nahi



Ehizatutako basurdeak Beteluko harategi zaharrean garbitu ohi dituzte. Arg: Ibai Telletxea.

adina basurde bota daitezke eta edo-
zein adinetakoak. Dena den, gu horre-
tan kontuarekin ibiltzen gara. Goizean
arrasto bila gabiltzanean ikusten badugu
basurde eme bat bere umeekin dabilela
bakean uzten dugu eta ez gara hori ehi-
zatzeraz joaten.

**Eta goizean aurkitutako arrastoen
ondoan jarraitu ohi dute basurdeek
arratsalde?**

Iñigo: Basurdeak egunez etzanda, lo,
egoten dira normalean eta gauz jaten
ibiltzen dira hara eta hona.

Ruben: Horregatik goizetan ahalik eta
eremurik zabalena begiratzeko saiatzen
gara. Norbaitek arrastoren bat aurkitzen
badu eta zuk ez baduzu ezer aurkitu bes-
teari laguntzera joaten zara. Pentsa, ba-
surdea gauz hamabi edo hamalau orduz
ibiltzen da neguan eta guk azken momen-
tuko arrastoa aurkitu beharra daukagu,
lotara joan aurreko arrasto hori.

Iñigo: Azkeneko errepassoa txakur one-
nekin ematen da.

**Tiro egiteko orduan zuen artean ados-
ten duzue? Edo nola egiten da?**

Ibai: Momentu horretan segurtasuna
lehenesten da. Tiro egiteko gaizki zau-
dela ikusten baduzu ez da bota behar.
Arratsaldean ehizara joaten garenean,
arrastoa aurkitu duten lekua inguratzen
joaten gara denon artean, bueltan-buel-
tan jartzen gara elkarrengandik berezita,
banan-banan. Peto laranja eramatea
beharrezkoa da eta norberak bere ezke-
rraldean eta bere eskuinaldean duen ki-
dea zehazki non dagoen jakin behar du,
ongi jakiteko tiroa non bota dezakeen
eta non ez.

**Mendi hauetan mendizale asko ibiltzen
dira. Horiekin arazorik izaten duzue?**

Ibai: Ez, gainera pistetan seinaleak jar-
tzen dira eta ez da inongo arazorik izaten.

Ruben: Jendeari ez diogu inoiz pasoa
debekatzeko, kontuz ibiltzeko esaten
diogu eta pasa nahi badute lasai pasa
daitezke eta kanpotik joanda seguruago
sentitzen badira, kanpotik.

**Eta zein motatako armak erabiltzen
dira?**

Iñigo: Ehizarako eskopeta normala batzuek
eta erriflea beste batzuek.

**Ehiza-barruti honek zenbat urte ditu
Iñigo?**

Iñigo: 40 urtetik gora izango ditu, nik
betidanik ezagutu izan dut. Garai ba-
tean askoz ere basurde gutxiago ziren
hemen, mendiak orain baino askoz ere
garbiagoak zeuden eta apenas izaten
zen basurderik.

**Beraz, ehiztarientzat ona da mendiak
zikin egotea...**

Ruben: Bai, basurdeetarako bai.

Iñigo: Bestalde, uso gehiago pasatzen
zen garai hartan, gaur egun, basurdea
eta orkatza kenduta oso ehiza gutxi dago
inguru honetan.

Eta basurdeek erasorik ez al dute egiten?

Ruben: Aurten astinaldiren bat eman di-
gute bai! [Kar, kar, kar]. Baina guri baino
gehiago txakurrei erasotzen diete.

Ibai: Azkenean inguraturik sentitzen
direnean euren burua salbatzen saia-
tzen dira. Arriskutsuenak, emeak euren
umeekin daudenean izaten dira.

Eta normalean tiro bakar batekin aski izaten da?

Ibai: Ona baldin bazara bai!

Ruben: Beti bularrean ematen saiatzen gara.

Iñigo: Baina askotan errazena hanketara jotzea izaten da eta beste batzuetan lasterka pasatzen da eta ahal den bezala. Huts galantak ere tarteka...

Ruben: Hutsak ere behar dira barre batzuk egiteko, bestela beti botaz gero ez luke graziarik izango.

Ze adin tarteko jendea ibiltzen da hemen ehizan?

Ruben: 14 urterekin jada lizentzia atera eta eskopeta batekin ehizara joan ahal zara, beti ere tutore batekin.

Iñigo: Baina gazteagoak ere joaten dira eskopetarik gabe. Hemen gaztetxoren bat edo beste etortzen da baina gehienak adinekoak dira. 80 urte inguruko asko daude. Ehiztari izugarri asko jaisten ari da azken urteotan.

Ibai: Geroz eta bazkide gutxiago gaude eta horien artean ere badira joaten ez diren asko. Faltan sumatzen ditugu gazte gehiago.

Ruben: Ehizan ibilian eta zaharragoengandik ikasten joaten zara. Nik Iñigorekin ikasi nuen izugarri eta gu ere orain gure atzetik datozeni erakusteko prest gaude. Edozein gaztek probatu nahiko balu edo egunen batean ikustera etorri nahiko balu, gu gustura.

Afizio garestia da?

Ibai: Hemen dugun ehiza-barrutirako bai, oso txikia da eta basurde gutxi daude.

Eta bazkari edo afariak egiten dituzue?

Iñigo: Bai, tarteka. Baita gosariak ere. Fama hala izaten da, ehiza aitzakia izaten dela elkarrekin gosalduek edo bazkaltzeko...

Ruben: Horretan nahiko finak gara gu eh! Tabernan baino askoz denbora gehiago pasatzen dugu mendian!

Iñigo: Goizean gosalduek eta gero martxa. Askotan gauera arte ezer jan gabe ibiltzen gara...

Eta kritikarik jasotzen duzue inguruko jendearen aldetik?

Ruben: Ez. Nik uste inguru honetan kritikatu baino baloratu egiten dutela ehiztaria.

Iñigo: Hemen ez badira harrapatzen, orduan bai kritika latzak! Barrutietan basurdeak molestatzeko hasten badira berehala hasten dira baserritarrek kexaka. Gainera arrastoren bat ikusten badute segituan abisatzen digute eta beti laguntza eta esker ona jasotzen dugu.

Baina animaliak ez dizue penarik ematen?

Iñigo: Basurdeak ez, gauza ugaria da eta...

“Basurdeak ehizatzeari utziko bagenio denbora gutxian izurritea bihurtuko litzateke”

Ibai: Nik pertsonalki pena hartzen dut basurdea bota eta ireki ondoren umea barruan duela suertatzen denean. Horrek pena ematen du. Edo nahi gabe umeekin dabilen basurde eme bat botatzen duzunean...

Iñigo: Baina ulertu behar dena da gauza oso ugaria dela eta basurdea ehizatzeari utziko bagenio urte pare baten buruan izurritea izango litzateke.

Ruben: Urtean 5.000 basurde inguru botatzen dira Nafarroan, eta hala ere urtero erritmo berean ugaltzen jarraitzen dute. Urtebetean 5.000 horiek bota gabe utziko bagenitu, etxeko baratzetara sartuko lirateke. Katalunian arazo larriak dituzte basurdeekin.

Iñigo: Aseguruek ere ez dute istripuegatik parterik eman nahi eta gobernua denboraldia luzatu nahian dabil.

Beste eskualde batzuekin alderatuta hemen oso basurde gutxi ehizatzen dituzue...

Iñigo: Bai hau berez ez da basurdearen habitat naturala, beste lekuetatik ihesean dabilzala sartzen dira gurera.

Ruben: Gu, hamabi ordu mendian pasa eta basurde bat etxera ekarri gero ikaragarri kontentu etortzen gara. Beste batzuk aldiz hamar botata ere ez dira konformatzen. Guk gehiago baloratzen dugu ehizatze modua eta txakurrek egindako lana botatako basurde kopurua baino.

Azeri, orkatz eta uso gutxi

Azeria eta orkatzaren denboraldia ere irailtik martxora bitarte izaten da...

Iñigo: Bai. Hemen azeriak betidanik harrapatu izan dira. Garai batean lazoak erabiltzen ziren azeri bideetan. Gaur egun hori debekatuta dago, gainera azeria ez da ezertarako aprobetxatzen. Lehen udalek eta artzainek dirua ematen zuten azeriak ehizatzeagatik. Aurten ez dugu azeri bakar bat ere bota eta orkatzetara ere ez gara joaten normalean.

Ibai: Orkatzaren ehiza mugatua egoten da. Gobernuak kopuruak zehazten ditu, baina geroz eta ugariagoa denez denboraldia geroz eta luzeagoa izaten da eta mugak ere geroz eta txikiagoak.

Ruben: Ehizatze modua basurdearen modukoa izaten da, baina ez du halako estimaziorik errazagoa delako ehizatze. Mendira atera eta askoz satisfazio handiagoa izaten da beti basurdea botatzea orkatza baino.



Ehizara geroz eta gazte gutxiago joaten bada ere, badira gaztetatik hasten direnak. Arg: Vicente Iriarte.

Iñigo: Gu basurdetara bakarrik joaten saiatzen gara.

Ruben: Txakurrak errazago ohitzen dira orkatzetara eta azerietara eta horregatik azeri eta orkatzei ez jarraitzen erakusten diegu. Eta basurde ehizan gabiltzanean, nahiz eta bidean orkatzak eta azeriak atera ez ditugu botatzen.

Eta uso denboraldia noiz izaten da?

Ibai: Urritik azarora bitarte.

Iñigo: Baina ez da usorik pasatzen, kontue besteik ez!

Ibai: Herri bakoitzak bere uso postuak ditu eta ehiztari bakoitzak bere herriko postuetan egiten du ehiza. Dena den, ehiza-barrutiko gainontzeko herrietara ere joan gaitzake, postuak libre baldin badaude, baina lehentasuna beti bertakoek izaten dute.

Herri bakoitzean zenbat postu izaten dira?

Ibai: Zazpi, hamaika, hamalau...

Iñigo: Baina erdiak baino gehiago hutsik egoten dira! [Kar, kar, kar].

Eta usotara normalean goizean goiz

joaten zarete?

Ruben: Bai, baina segituan aspertzen gara.

Iñigo: Normalean basurdetan ibiltzen denak usotarako pazientzia gutxi izaten du. Ezberdina da.

Txakurrak erabiltzen dira ere?

Ibai: Piezak biltzeko txakurren bat izanez gero bai, baina bestela erraz ikusten duzu non erori den.

Iñigo: Ez da lanik izaten usoak biltzen eta ez dago kuidadorik!

“Oilagorretarako afizio handia dago”

Oilagorretan aldiz jende asko ibiltzen da inguruan...

Ruben: Afizio handia dago hemen oilagorretarako, geroz eta gehiago. Oilagor denboraldia urriaren erdialdetik urtarriaren amaiera arte izaten da.

Ehiza hori nola egiten da?

Ibai: Ehiztaria normalean bakarrik oinez joaten da bere txakurrarekin eta bere GPSarekin. Txakurrak oilagorra bertan dela usaintzen duenean geldi-

tu egiten da eta ehiztariak atzetik bota egiten du. Egunean gehienez ere hiru oilagor soilik bota ditzakete.

Eta non behar da punteria hobea oilagorretan ala basurdetan?

Ruben: Punteria finena berez basurdetarako behar da. Hiru bala kargatzen dira, baina tiro bakoitzean berun puska bakarra ateratzen da eta oilagorretan aldiz, tiro bakarrean perdigo txiki asko zabaltzen dira.

Eta oilagor denboraldia zer moduz joan da aurten?

Ibai: Ale batzuk bota dituzte...

Iñigo: Baina horiek guk baino gezur handiagoak botatzen dituzte!

Ibai: Horien artean pike handigoa izaten da.



<< Nor da Nor?



Nortzuk azaltzen dira argazkian?

Non ateratakoa da?

Noiz ateratako argazkia da?

Ea asmatzen dituzuen boskote elegante honek bere garaian ateratako argazkiaren nondik norakoak!

Erantzunak hurrengo alean kaleratuko ditugu!

Atal berri honekin zuen etxeetako kutxetan dituzuen garai bateko argazkiak berreskuratu nahi ditugu. Honako argazki honekin emanen diogu hasiera.

Bidal iezaizkiguzu zure argazkiak denon gozameneko mailope@labrit.net helbidera edo 638 65 23 39 deitu eta kudeatuko dugu.

- 15 -



**GRUPO TANATORIO
IRACHE**
TANATORIO TALDEA

948 19 70 70
www.tanatoriosirache.es

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-
LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA


urrutia
enea

etxeko hestekiak
LEKUNBERRI

OTXOTORENA
okindegia

ARRIBE 

ADIII! TLF BERRIA:
948 51 30 32


panaderia okindegia
GALBURU eco

Egurrezko laboreko ogi ekologikoa

Alde Zaharra 50 LEKUNBERRI 31870
948 50 40 42



“Egurrezko labeak beste zapore bat ematen dio”

Joxerra De Castro lekunberriarrak txikitatik ezagutzen du okindegiko lana eta azken hiru urteotan bera dabil Galburu okindegiko ogiak egiten. Orain gainera ogi ekologikoa ere egiten hasi dira.

28 urte daramatza De Castro-Martiarena familiak Lekunberriko Martillonean ogia egiten. 1988an hasi zen Baltasar De Castro bere emazte Mari Jose Martiarenarekin batera ogia egiten. Baltasar: “Ni Salamancan jaioa naiz, 17 urterekin etorri nintzen hona lan bila. Argiketari lanetan ibili nintzen lehenik eta ondoren Sarrió paper-lantegian, baina horrek porrot egin zuenean nire kontutik hastea erabaki nuen”. Eta hala hasi ziren Mari Joseren aitaren behien ikuilua izan zen hartan.

Baltasrek izeba-osaba okinak zituen Salamancan eta horiengandik ikasi zuen ofizioa. Baltasar: “Hasi ginenean ez zegoen makina bakar bat ere, labea baino ez! Gainontzeko guztia eskuz egiten genuen”. Lekunberri bertan saltzeaz gain, Etxarri, Arruitz eta Larraungo beste herri batzuetan hasi zen ogia

banatzen eta pixkanaka geroz eta toki gehiagotan bezeroak lortzen joan ziren.

la 30 urteren ondoren, oraindik ere negozio familiar bat izaten jarraitzen du. Baltasar dagoeneko erretiraturik egon arren, orain hiru urte Joxerra De Castro semeak hartu zion erreleboa eta Mari Josek Galburu okindegiko dendan egunero saltzen dizkie bertan egindako produktuak eskutik eskura bezeroei.

Okindegian denborak aurrera egin duen arren eta egun ogia egiteko zenbait makinaren laguntza izan arren, oso modu tradizionalan egiten jarritzen dute eta gauero pizten dute ogiari ezaugarri horren bereziak ematen dizkion egurrezko labea.

Mota askotako ogiak egiten dituzte Galburun: 600 eta 1.100 gramoko ogi

borobilak, "leña" eta "leñitak", "tajak", integrala barran nahiz forma borobilarekin, gallegoa, txapata, olioa darman ogia, "zopako", barra normalak, flautak, arto irinarekin egindako ogia, espeltazko ogia, zikiriozko ogia... Eta horrez gain, arratsaldeetan Mari Josek opil ezberdinak egiten ditu: kruasanak, napolitanak, madalenak, erroskillak, bizkotxoak, pastak...

Mari Jose: "Guk ez diogu kontserbaterik botatzen produktu bakar bati. Modu tradizionalan egindako ogiak egungo ogiek baino gehiago irauten dute jateko moduan eta opilak behin poltsa irekita azkarrago lehortzen dira, baina askoz ere osasuntsuagoak dira. Hemen jendearen gehiengoak labe elektrikoan egindako barra eramaten du, bezeroen laurden batek egurrezko labean egindako ogia erosten du. Baina batez ere kanpotarrek eta gipuzkoarrek estimatzen dute labeko ogia".



Modu tradizionalan egindako ogia eta orain ekologikoa

Ogi ekologikoa merkaturatzea erraza ez den arren, horren aldeko apustua egin dute Galburun.

Joxerra, zein izaten da zure eguneroko lana okindegian?

Arratsaldeko zortzietan hasten naiz dena prestatu eta lehenengo ogiak egiten. Goizeko seietan ogia banatzera ateratzen naiz eta banaketa normalean goizeko hamabiak aldera amaitzen dut. Lehenik ogi handienak egiten ditut eta azkenak ekologikoak, makinak garbitu

egin behar baitira ekologikoa egin aurretik, beste irinarekin nahasi ez dadin.

Zein prozesu jarraitzen duzu?

Ogi mota bakoitza ezberdin egiten da, irina ezberdina delako, forma ezberdina, batzuek mami gehiago dute, beste batzuek gutxiago... Zeharo aldatzen da.

Ogi barra normala nola egiten duzue?

Barrako ogiak egiteko, lehenik oratzeko makinan irina, gatza, ura eta legamia botatzen da eta 20 minutu inguru

egoten da nahasten. Behin orea eginda dagoenean, zatika hartu eta pisatu egiten da ogi bakoitzerako behar diren gramoak kalkulatu eta oreka zati bakoitza bolaztatzeko makinan sartzen da, hori minutu gutxi batzuetan uzten zaio atsedend hartzen.

Zertarako?

Oratu eta berehala oreka esku artean hartuko bagenu eta ogi barraren forma ematen hasiko bagina, ez litzateke behar bezala luzatuko. Horregatik makina ho-



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Orduetgia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com



rretan minutu gutxi batzuetan utzi eta prest egoten da eskuz forma emateko. Ogi borobil handiak adibidez ez dira bolaztatzeko makinatik pasatzen.

Eta gero legamiatzen uzten da...

Bai. Hor ere geroz eta legamia gehiago bota denbora gutxiago behar izaten du ogiak harrotzeko. Baina nik nahiago izaten dut legamia gutxiago bota eta pixkanaka harrotzen joan dadila. Osasuntsuagoa da horrela.

Legamia ekologikoa erabiltzen dugu ogi guztientzako eta horrekin batera ore ama zati bat gehitzen zaio. Legamiatzeko egurrezko kutxetan sartzen da ogia. Hemen ez dugu berotzeko makinarik erabiltzen. Modu naturalean uzten da harrotzen, giroan sortzen den beroarekin. Gainera, behin labea pizten denean eta atea ixten direnean berehala igotzen da okindegiko tenperatura eta pixkanaka legamiatzen joaten da. Horretarako ere egun guztiak ezberdinak izaten dira, kanpoan egiten duen tenperaturaren arabera kontrolatu behar da.

Horregatik leihoak irekiz edo itxiz behar den tenperaturara egokitzen dugu. Eta gero labera!

Gaur egun ogia non saltzen duzue?

Amak dendan saltzen jarraitzen du. Eta ni egunero Larraun eta Basaburuko zenbait herritara joaten naiz ogia bana-tzera, Azpirotz, Gorriti, Mugiro, Etxarri, Arruitz, Aldatz, Beruete, Jauntzarats.... Astearte eta ostegunetan Arraratsera eta Igoara joaten naiz eta igandetan Imozko zenbait herritara ere joaten naiz.

Baina Iruñean eta Gipuzkoara ere saltzen duzue...

Bai, goizero furgoneta bat etortzen da Gipuzkoako salmenta puntu ezberdinetara ogia eramateko eta Iruñe aldean neronek banatzen dut.

Zenbat ogi egiten duzue egunean?

Astelehenetan beti gutxiago egiten dugu eta asteburuetan gehiago. Batezbestekoa eguneko 5 zaku irin izaten da, hau da 250 kilogramo irin.

Orain urtebete hasi zinen ogi ekologikoa egiten...

Bai. Horren aldeko apustua egin dut. Ogi guztietarako legami ekologikoa erabiltzen dut, transgenikorik gabea, baita bolaztatzeko makinan ere, baina ogi ekologikoaren kasuan irina ere ekologikoa da. Hori da aldatzen den gauza bakarra. Guk ogia beti oso sana egin izan dugu, inoiz ez diogu gauza berezirik bota eta ogiak modu tradizionalen egiten dira. Orain ekologikoa merkaturatu dugun honetan askok esaten digute gurea baino ekologikorik ez dagoela! Baina orain irin ekologikoarekin, are eta osasuntsuagoa da.

Eta hemen inguruko bezeroek ekologikoa baloratzen al dute?

Ez gehiegi. Hemen ez gaude oso mentalizaturik eta pixka bat garestiagoa izateak ere eragiten du. Hirian preziatuagoa da, geroz eta gehiago gainera, eta ez bakarrik ogian, baita gainontzeko elikagaietan ere. Irin ekologikoarekin ogia egitea ez da erraza, asko ez dira gai izan ogi barra ekologikoa merkaturatzeko. Nik proba asko egin ondoren lortu nuen, baina jendeak ez du aski baloratzen.

Zer pentsatzen duzue gaur egungo ogien kalitateari buruz?

Edozer gauza jatera ohituta gaude jada. Kontserbagarritz betetako ogiak, aurretik izoztutakoak... Ogi naturalek, kontserbanterik gabe iraun egiten dute. Medikuek geroz eta gauza gehiago debeatzen dituzte, ogia, esnekiak, haragia... Elikagaiak horrenbeste industrializatu dira gure gorputzarentzako kaltegarri bihurtu direla. Baina geroz eta gehiago dira horretaz oharturik ekologikoaren alde egiten dutenak.



Lagunasesoría S.L.
Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

SAN MIGUEL
gasolindegia



Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu

German Lasarte
ARBEONDO
HARATEGIA
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157



OKM
ABOKATUAK
Eukeni Celaya Zubieta · Mikel Iraola Sarasua
Arretxea, 1º, Alli. Tfnoa: 609 130 555

Siriako errefuxiatuen aldeko laguntza kanpaina jarri dute martxan Araxesko ikasleek

Sirian bizi duten egoeratik ihesean dabiltzan milaka errefuxiatuen irudi lazgarriak ikusten ari gara egunero hedabideetan. Egoera ikusita, Kaliforniako emakume bati bururatu zitzaion ideia, berak bere seme-alabekin erabilitako ume-eramaileak guraso horientzat zeinen lagungarri izan zitezkeenaz oharturik. Hori dela eta bere inguruko ezagunen artean ume-eramaileak biltzen hasi zen, gero errefuxiatuei oparitzeko.

“Carry the future” izeneko egitasmo horretan oinarriturik, joan den otsailean jarri zuten martxan Donostian “Portabebesparasiria” kanpaina eta dagoeneko Euskal Herriko zenbait txokotara zabaldu da. Gurean ere Araxes ikastetxeko DBH-2ko ikasleak arduratu dira kanpaina hori aurrera eramateaz. Ume-eramaileak, arropa eta dirua biltzeko sei puntu jarri dituzte gure eskualdean.

“Umeak eramateko motxilak, arropa (ez du zertan berria izan) eta dirua biltzea da gure helburua. Errefuxiatuak, gerratik ihesi datoz, aukera baten bila, etxeak suntsitu dizkietelako, senideak galdu dituztelako eta ezer gabe gelditu direlako. Kilometroak eta kilometroak oinez egin ondoren, bidea mozten dieten hesiak aurkitu dituzte. Milaka pertsona daude bildurik 250 pertsonarentzat prestaturiko hainbat kanpalekutan, gosez, hotzez eta erantzunik gabe”:

Kanpaina horren bitartez egindako ekarpenek egoera konponduko ez duten arren, pertsona horiek merezi duten bizitokia bilatu bitarteko bidaia izugarri erraztu dezakete.

Biltokiak:

Beteluko Araxes Ikastetxea (umeak eramateko motxilak + erabiltako arropa)

Beteluko Rosa janaridenda (diru laguntza)

Beteluko Atabal Okindegia (diru laguntza)

Arribeko Maritere denda (diru laguntza)

Tolosako Bidegoxo taberna (umeak eramateko motxilak + diru laguntza)

Lekunberriko kiroldegia (umeak eramateko motxilak + diru laguntza)

Azken data: Motxilak, arropak eta dirua apirilaren 22ra arte bilduko dira.

Kontaktua:

iratiaraxes@gmail.com

lecpuuf@gmail.com

Informazio gehiago: www.portabebesparasiria.es



Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com

ETXEZ ETXEKO EGUR SALMENTA

URTE OSOAN ZEHAR

EGURRA
EXPRES

☎ 635 90 91 95

✉ promanburillo@gmail.com

Erbiti, Basaburua

Gure egurraren kalitatea eta prezioak ikusten dituzunean kea aterako diezu

Emakumearen Nazioarteko Eguneko ekimenak

Martxoaren 8an izan zen Emakumearen Nazioarteko Eguna-ren baitan, Lekunberriko Udalak urtero bezala zenbait ekitaldi eta jarduera antolatu zituen hilabete osoan. Egunean bertan ere, bi kontzentrazio izan ziren Lekunberrin eta Lekunberri eta Larraungo emakumeek pintxo eta ardo dastaketa egin zuten Kattagorri elkartearen. Araitzen ere, udaletxeko etxaurrea aldarrikapen karteletz apaindu zuten.



Asun Olaetxea Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakari izendatu dute



Helio Robledak izan du azkeneko sei urte hauetan Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaritzaren ardurara eta Asun Olaetxea betelurrak beteko du hurrengo sei urte hotan bere lekua. Orain arte kontu-ikuskari lanetan aritu da eta joan den hilean Parlamen-

tuan bertan onartu zuten bere izendapena, Gobernua babesten duten alderdiek bere hautagaitza aurkeztu eta gero. 1998an hasi zen Kontuen Ganberan teknikari lanetan eta handik zazpi urtera auditorearen lanpostua eskuratu zuen.

Txikitatik aho-hortzetako osasunak duen garrantziaz

Joan den hilean Ane Vitoria odontopediatrak txikiaren aho-hortzetako osasunari buruzko hitzaldia eskaini zuen, Iortia Klinikak antolatuta. 20 lagun inguru elkartu ziren. Hortzetako txantzarrek, kosk gaizki egiteak zer nolako eraginak izan ditzakeen azaldu zuen besteak beste. Bea Buldain izan zen hitzaldira hurbildu zenetako bat: "Dugun ezjakintasunak arritu nau. Lehen esnezko hortzei ez zitzaien halako garrantzia ematen eta orain geroz eta gehiago entzuten dugu zer nolako garrantzia duen horiek zaintzeak etorkizunerako". Idoia Balda: "Harrigarria da zeinen garrantzitsua den txikitatik ahoko osasuna eta nola eragin dezakeen gorputz osoan".



Eskerrik asko Larraun, zorionak Erriberera

Bukatu da Errigoraren kanpaina, Erriberako produktuek erosiz bertako euskaldunak eta euskaltzaleak laguntzeko. Bildutako diruaren %25 euskararen aldeko programak egitera bideratzen dira, gainontzekoa Erriberako nekazariarentzat utziz (enpresa txikiak, kalitateko produktuak, lan baldintzak zaintzen dituztenak). Aurten, Larraunen 33 familiek Erriberako produktuen saskiak hartu dituzte, guztira 1.650 euro bildu dira. Euskal Herria osoan 12.000tik gora saski banatuko dira. Beste behin ere izugarria izan da eta denoi esker. Animo ba, lana ongi egin izanaren harrotasunarekin, goza dezagun eskuartean ditugun produktuez, ondo merezia dugu eta!

AEK eta Amaralar Elkarteak.

Mailope Kultur Elkartearen bide berriak irekitzeko tailerra

Apirilaren 9an, Mailope Kultur Elkarteak tailer bat egingo du, batetik aldizkariaren gaineko iritziak jasotzeko eta, bestetik, elkarte bezala etorkizunean bertatik abia daitezkeen dinamikak aztertzeko.

Duela bi hilabete Mailope Aldizkariak egindako urteko batzarraren, herritar zenbaiten aldetik, elkarteak, aldizkariak gain, eskaini ditzakeen aukeren gaineko interesa adierazi zuten. Elkarte orain arte nagusiki Mailope Aldizkaria aurrera ateratzera mugatu da. Hori dela eta, imajinazioaren eta gogoaren mugak ezagutu nahian, hitzordua dugu goizeko 10:00etan Arribeko Elkartearen.

Animatu eta hurbildu!

Hamahiru bikotek parte hartu dute Satorzuloko II. Frontenis Txapelketan

Satorzulo Lokaleko gazteek antolatutako III. Frontenis Txapelketan hamahiru bikote elkartu ziren. Joan den martxoaren 26an jokatu zen Beteluko frontoian. Finala, Gari Huizi eta Gari Garmendiak Niko eta Odei Arregiren kontra jokatu zuten eta azkenean kanpotarrak izan ziren garaile.



Aurtengo edizioan 26 lagunek parte hartu dute. Arg: Ander Prados.

Aralarko San Migel Aingeruaren jaitsiera

40 lagun bildu ziren joan den hilean Aralarko San Migel Santutegitik aingerua atera zutenean urteroko herriz herriko ibilbidea egiteko. Mariano Zubiria lekunberriarra arduratu zen San Migelen irudia bizkar aginean eramateaz. Egun eguzkitsua atera bazen ere, lehenengo kilometroak elur gaintetik egin zituzten. Lehenengo geldialdia Baraiarren egin zuten. Datozen asteotan, Jexux Mari Sotilek gidaturik eskualdeko herrietan barna ibili eta gero Iruñea aldera eramango dute. Guztira Nafarroako 300 herri baino gehiagotan gurtuko dute aingerua santutegira bueltatu aurretik.



Lehen kilometroak elurretan egin zituzten. Arg: J.M. Zabaleta.

Bertso-afaria Maialen Lujanbio eta Julio Sotorekin

Apirilaren 23an bertso-afaria izanen da Lekunberriko Kattagorri Elkartearen, Julio Soto eta Maialen Lujanbioekin. Larraungo Bertso Eskolako kideek antolatu dute eta dagoeneko txartelak salgai daude 20 eurotan, Mitxausean kultur etxean eta Ainhoa, Amairu eta Elostabernetan.

 **ALIPROX**
Lekunberri
janaridenda
hamabostaldi
eskaintza bereziak

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA
 **696 658 288**
LEKUNBERRI

 **SUAKONTROL LEKUNBERRI**
Suaren kontrako plakak
Oztegin kalea 25,
Lekunberri
948 60 48 96 (Tel.)
948 60 45 16 (Faxa)
suakontrol@grena.es
www.grena.es

IORTIA CLINICA DENTAL HORTZ-ESTETIKA
Juanjo Gaite García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591
Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsatsu: 948 467 603 · 667 66 17 69
ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

Arruitz eta Gaintzakoak azkenak

Arruitzen aurten atzeratu egin zituzten inauteriak, baina ez ziren ospatu gabe gelditu eta urtero bezala herrian barna trikiti-jole eta pandero-joleekin batera ibili ondoren Attezar erre zuten frontoian. Gaintzan ere euria eta elurra egin bazuen ere kuadrila ederra bildu zen etxez etxe egin zuten puska-biltzan. Horra hor zenbait irudi!



Leitzarrak irabazle Bardoen finalean

270 entzule bildu ziren Etxarri Aranazko frontoian. Iruñeko Obario Maldikoak, Berako Larungo Antenak eta Leitzako Atekaberts taldeak aritu ziren aurtengo Bardoak Nafarroako taldekako ekimenaren azkeneko saioan. Guztira 23 saio izan dira bi hilabeteetan zehar eta 121 lagunek parte hartu dute horietatik 71 bertsolari. 16 taldetatik hiru sailkatu ziren finalean aritzeko eta azkenean leitzarrek irabazi zuten.




CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
 ZURGINTZA OROKORRA
 INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
 Telefonoa eta Faxa: 948507343
 carpinteria@carpinteriaazpiroz.com

OGI-BERRI ALTZA
 Aralar kalea, 41
 Lekunberri

OGI BERRI
 OKIN ARTISAUAK 948604884

**AURRERA
 TABERNA
 ARALAR, 15
 948 60 47 24**

**TAXI
 SOROA
 609 168 217
 Bederatzi plaza**

Herriz herri kontzertuak eskaini dituzte Aralar Musika Eskolako ikasleek

Aralar Musika Eskolak hainbat emanaldi eskaini zituen martxoan zehar. Goizueta, Leitza, Ultzama, Basaburua, Lekunberri, Larraun, Araitz eta Beteluko ikasleek ikasturte honetan ikasitakoarekin musika tresna ezberdinen kontzertuak eskaini zituzten hainbat herritan. Lekunberrin txistua, zeharkako txirula eta saxofoia jotzen duten ikasleen kontzertuak izan ziren eta Betelun piano-joleak bildu ziren. Bestalde, martxoaren 12an musika eskolako abesbatzan dabilzan ikasleek kontzertu ikusgarri bat eskaini zuten. "Urrezko Orrazia" izeneko ipuin musikatu horretaz gozatu zuten Lekunberriko kiroldegira joan ziren 350 ikusle inguruk. 120 ikaslek eta 21 irakaslek parte hartu zuten.




Aralar Musika Eskola sasoi betean dago. Aurten ere Musikari Txikien Tailerra eskainiko dute sei hilabete eta hiru urte bitarteko haurrentzat. Marta Zuñiga eta Unai Artola arduratuko dira maiatzean izanen diren lau saioak zuzentzeaz. Tailerra eta bertan gurasoek jasoko duten audio-letra materialaren kostua 30 eurokoa izanen da. Apirilaren 15ean amaitzen da izen emateko epea eta parte hartzaile kopurua mugatua izanen da.



Informazio gehiago: info@aralar.org edo 948504489 / 672122472.

Literatur solasaldia Xabier Mendigurenen eskutik



Hurrengo maiatzaren 5ean, Xabier Mendiguren idazleak literatur solasaldia eskainiko du arratsaldeko 18:30ean Lekunberriko kultur etxean. Bere bi lanen inguruan arituko da bertan, *Motozerra* liburua eta *Vikingoen sorterrira* liburua aztertuko ditu. *Motozerra* gazteei eta euskara ikasten ari direnentzako proposa da. *Vikingoen sorterrira*, aldiz, ipuin bilduma bat da. Maiatza Kulturalaren egitarauaren barruan antolatu dute solasaldi hori eta aitzakia ederra izan liteke aurretik liburu horietako bat irakurtzeko. *Vikingoen sorterrira* liburuaren ale bat Mitxausenea liburutegian dago eskuragarri eta Euskara Zerbitzuan ere bi liburuen ale bana daude.



Eskualdeko emakumezkoak ere Lilatoian

Urtetik urtera geroz eta gehiago dira Emakumearen Nazioarteko Egunaren bueltan Donostian antolatzen den Lilatoian parte hartzen dutenak. Aurtengoan 5.000 lasterkari inguru bildu ziren martxoaren 6an egin zen lasterketan. 5 kilometroko ibilbidea egin zuten lasterka hiri barruan. Eskualde-tik ere zenbaitek parte hartu zuten. Bost larraundar hauek gogor entrenatu ondoren ederki pasa zuten. Zorionak!

Eskualdeko kirolariak Nafarroako Kirol Jokoetan

Nafarroako Kirol Jokoen txapelketa amaitu da dagoeneko eta aurten ere Araxes Herri Kirol taldeko gazteak bertan izan ziren. Taldeak osatzeko gutxieneko partaide kopurura iristeko zailtasuna dela eta zenbait kategoriatan beste talde batzuekin elkartu ziren baina, hala ere, lau arlo ezberdinetan parte hartu zuten eta guztietan jaso zuten sariren bat. Kimuen eta haurren kategorian, hirugarren gelditu ziren. Eta Kadete mailan, konbinaden proban bigarren postua eskuratu zuten eta sokatiran hirugarren lekuan gelditu ziren.

Bestetik, pasa den otsailaren amaieran jokatu zen Iruñean Nafarroako Kirol Jokoen emakumezkoen gimnasia artistikoko txapelketako lehen fasea. Nafarroako zortzi taldetako 180 neskatok parte hartu zuten, tartean Lekunberrin entrenatzen diren eskualdeko neskak. Urtetik urtera hobetzen doaz eta beste taldeekin lehiari aritzeak are eta lan handiago egitera bultzatzen ditu. Zorionak neskak!



NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41
Fax 948 60 45 20

Lekunberri
urzubi@hotmail.com

NEKAZARI, S.L.
Kubota
STIHL
ANTONIO CARRARO

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazaris1@hotmail.com

AMAIRU BAR

GTXKO PIZZAK,
KOPA BERGIZIAK

948504352

Kantina Rock

948
60
48
21

KANTINA

bokatak, platerak eta...musika.....

TAXILON

661 202 249
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com

Atallu - Araitz

Lontxo
Otamendi
Artola

47 lasterkarik parte hartu dute Legoako proba nagusian

Parte-hartzaile gutxi izan ziren aurtengoan Txikitoren Omezezko Legoako proba nagusian, inguruan beste kirol proba batzuk zeuden egun berean eta aurreko eguneko euri jasek ere ez zuten gehiegi lagundu parte hartzea sustatzen. Azkenean 47 korrikalari bildu ziren. Gizonezkoetan Leongo Jorge Manuel Perezek irabazi zuen 19 minutu eta 13 segundorekin. Atzetik Antsoaingo Antonio Casado (00:19:37) eta Irunberriko Oscar Primo (00:20:36) sailkatu ziren. Emakumezkoetan, Lourdes Colomo zizurkildarra izan zen azkarrena (00:24:03), eta bigarren eta hirugarren postua eskuratu zuten Amaia Arruek (26:06) eta M^a Carmen Olasok (27:01).

Proba nagusiaren aurretik gaztetxoek ibili ziren korrika, kategoriaz kategoriaz egokitutako probetan. Guztira 69 lagunek parte hartu zuten. Jarraian eskualdeko lasterkarien sailkapena.

| IZEN-ABIZENAK | HERRIA | DENBORA |
|---------------------|------------|----------|
| Xabier Satrustegi | Betelu | 00:21:23 |
| Isaac Alvarez | Lekunberri | 00:21:59 |
| Mikel De Carlos | Lekunberri | 00:22:16 |
| Mikel Ijurko | Lekunberri | 00:22:49 |
| Juan Mari Irastorza | Lekunberri | 00:23:27 |
| Luis Mari Larreta | Aldatz | 00:23:34 |
| Imanol Estanga | Betelu | 00:23:55 |
| Imanol Jaka | Larraun | 00:24:59 |
| Xanti Garmendia | Betelu | 00:25:16 |
| Xabier Zubillaga | Lekunberri | 00:27:07 |
| Isidro Serrano | Lekunberri | 00:27:43 |
| Maialen Ruiz | Lekunberri | 00:29:41 |
| Arantza Mauleon | Aldatz | 00:29:58 |
| Jon Ander Etxarri | Lekunberri | 00:31:03 |
| Iñaki Albeniz | Lekunberri | 00:31:04 |



Bailarako jarduera eskaintzak ez omen du larraundarren %92 asebetetzen

Bizi Larraun bizi taldeak Larraunen antolatzen diren jardueri buruzko herri inkesta egin zuen joan den otsailean. Facebook eta WhatsApp bidez zabaldu zuten inkesta. Helburua larraundarrek ibarreko giroari buruz duten pertzepzioa neurtzea zen, ondoren taldeak egiteko asmoa duten agenda bateratua osatu ahal izateko, beti ere jendeak dituen interesen arabera.

Bizi Larraun Biziko antolatzaileak pozik agertu dira parte-hartzearekin. Guztira 84 lagunek bete zuten inkesta eta jasotako emaitzen lehen balorazioa egin dute dagoeneko.


I. ATALA: LARRAUNEN EGITEN ARI DIREN JARDUERAK EDO AKTIBITATEAK

- 26 -

1. Larraungo egoera, egiten diren ekimenen aldetik, horrela baloratu da:

Osotara atera den batez besteko nota 5,04koa da.

1. Orokorrean, nola ikusten duzu Larraungo egoera, aktibitatez edo jardueraz?



Hostal Betelu

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak:
948513026
618557889

BETELU PNEUMATIKOAK

TAILER MUGIKORRA

NEUMATIKO ALDAKETA ZULATZEEN KONPONKETA

Vicente Iriarte
T. 646 474 166
www.neumaticosbetelu.es

LARRAUN GARABI ZERBITZUA 24 ORDUZ
MEKANIKA ETA ELEKTRIZITATE TAILERRA

Gruas y Talleres LARRAUN s.l.

Lekunberriko industriagunea,
21. nabea
31870 Lekunberri
Nafarroa

Mugikorra: 626 494 356
Telefonoa: 948 507 229
Faxa: 948 507 281
gtlarrapun@gmail.com



2. Ekintzak baloratzerakoan % 8 soilik dago konforme eskaintzen diren ekimenekin:

3. Hutsune nagusiak aipatzeko aukera emanda, halako ekintza motak eskatzen dira: Gazteei zuzendutako ekintzak (eta hauen parte-hartzea), adinekoei zuzendutakoak, gure ingurua ezagutzeko dinamikak (mendi-ibilaldiak...), kultur arloko hutsuneak betetzea (antzerkigintza, zineman, artean, literaturan...), gaurkotasunezko gaien inguruko hitzaldiak edota eztabaidak, genero berdintasuna lantzeko ekimenak, parrandak...

Bestalde, egiten diren gauzetan inplikazio zabalagoa bilatzea eta aspalditik egiten diren ekintzei berrikuntza puntuak sartzeari ere eskariak daude.



%63 Nahi izanez gero badaude egiteko gauzak, baina faltan botatzen dituzten ekintza.

%29 Ez da ekintza asko antolatzen, hutsune handiak daude.

%8 Gauza asko antolatzen dira eta ekimen asko daude.

II. ATALA: LARRAUNGO AGENDA SORTZEAREN INGURUKO BALORAZIOA



1. Gure ibarrean egiten diren ekintza guztiak bilduko dituen agenda bat sortzearen interesaz galdetuta, horrela baloratu zen:


Osoz, batez besteko interesa 10etik 8,3koa da.

2. Agenda horrek izan beharko lukeen formatuaz galdetuta, ia erdiak mugikor eta tableterako aplikazioa izatea nahiko luke:

*Aipatu behar da, 'Gehiago' atala erantzun dutenen artean proposamen ezberdinak bildu direla. Haien artean gehien proposatu dena App eta paperezkoaren arteko konbinazioa izan da, hau da, biak egitea. Erantzunen %18 izango litzateke.

Honakoak izan dira Bizi Larraun bizi taldeko kideek ateratako ondorioak: "Alde batetik, halako inkestak izan dezaketen balore erlatiboak kontuan hartu behar dugu, baina bestaldetik, lortu ditugun emaitzak nahiko esanguratsuak direla iruditzen zaigu eta gure ustez atera daitezkeen ondorio nagusiak hauek dira: Alde batetik, egiten diren aktibitateek gaitzitu eskas bat lortzen dutela (5,04). Eta bestetik, inkesta erantzun dugun artean, %92, gaur egun dugun eskaintzak ez gaitzela betetzen. Eta ondorioz agendaren inizatiba positiboki baloratzen da".

2. Zer nolako agenda egingo zenuke?



%48 Mugikorreko eta tableterako aplikazioa; %24 Gehiago; %15 Paperezkoa; %13 Blog moduko baten bidez.

“Egungo autoek geroz eta sistema elektronikoko konplexuagoak dituzte”

Xabi Sotilekin dagoeneko hirugarren belaunaldia da Beteluko Sotil Garajearentzat.

Tailer honek urte batzuk baditu... Nork jarri zuen martxan?
Ziriako Sotilek, nire attuna zenak.

Beteluarra zen?
Bai, Azkonegikoa. Hasieratik hemen jarri zuen tailerra. Berak eraiki zuen etxe hau ezkontzerako eta etxebizitzaren azpian tailerra jarri zuen. Bera bakarrik ibiltzen zen hemen lanean.

Baina gero zure aita, Iñaki, hasi zen...
Bai aita hemen aritu izan da beti eta nire anaia ere ibili zen baina utzi egin zuen gero. Eta orain nik bakarrik eraman dut hemengo martxa.

Zuk betidanik ikusten zenuen zeure burua hemen lan egiten?
Ez, ez nuen argi. Nik txapista ikasketak egin nituen eta ondoren Iruñeko enpre-

sa batean ibili nintzen lanean. Hango egoera okertzen hasi zen, aita erretiratzekotan zegoen eta dena utzi eta hemen hastea erabaki nuen duela hiru bat urte.

Geroztik hemen zuk bakarrik egiten duzu lan?
Bai, ni bakarrik aritzen naiz eta bulegoko lanetarako langile bat daukat Mari Jose Huarte.

Eta zer moduz zabilta?
Oso gustura. Hemen nire martxan ibiltzen naiz, herrian bertan nago, inora mugitu beharrik gabe, eta bezeroak etortzen diren bitartean gustua...


Bezeroak hemen ingurukoak izaten dira denak?



Bai gehienak zulokoak, bertakoak. Baina ezin naiz kexatu, bezero onak dauzkat.

Talleres Sotil, betidanik hala du izena?
Bai, baina nik orain aldatu egin diot eta Sotil Garajea jarri diot. Baina kartelak aldatu gabe jarraitzen du, banabil kentzekotan, baina hortxe dago oraingoz!

Zeintzuk dira eskaintzen dituzun zerbitzuak?
Mekanikarekin erlazionaturiko guztia: olio aldaketak, gurpilak, pastillak, enbrageak, kaxa, kulatak, gurpilen lerrokadurak...



Eta txaparekin lotutako lanak ez dituzu egiten?

Ez, horretarako beste kabina bat beharko nuke eta oraingoz behintzat ez. Oraingoz daukadan lanarekin ongi doa eta etorkizunen lan gehiago ateratzen bada beste soldata bat ordaintzeko hobeto.

Zein ordutegirekin lan egiten duzu?

Goizean 09:00etan irekitzen dut 13:30ak arte eta arratsaldean 15:30etik 19:00etara. Astelehenetik ostiralera. Larunbatetan, ostiralean zerbait bukatu gabe utziz gero tarteka ere irekitzen dut baina normalean ez.

Krisi garaian hasi zinen hemen...

Nabaritu al duzu?

Hemen suertez, bezeroek ez diote horregatik etortzeari utzi.

Baina nabaritutako duzu jendeak denbora luzeagoan eusten diola gurpilak aldatzerako orduan etab.

Dudarik gabe! Ahal duten guztia luzatzen saiatzen dira orain. Eta pieza batetik merkatuan 200 euro balio baditu autoak desegiteko tokitik erdi prezioan ekartzeko eskatzen didate. Eta eskatuz gero ekartzen diet baina bermerik ez dute izaten pieza horiek eta ez zait gehiegi gustatzen.

Gaur egungo autoek geroz eta sistema elektronikoagoak dituzte...

Bai, geroz eta konplexuagoak dira eta horregatik orain ikastaroak egiten nabilt. Beharrezkoak dira, geroz eta kontu handiagoarekin ibili behar izaten dugu halako konponketak egiterako orduan. Gainera marka edo etxe bakoitzak ere bere berezitasunak izaten ditu...

Askok olio aldaketak eta halako lan txikiak euren kabuz egingo dituzte ezta?

Bai, bai. Baina nabaritzen da batzuek geroz eta beldur gehiago izaten dutela, aipatutako konplexutasun horregatik. Egun auto batzuei olio aldatzeko beharrezkoa da makinarekin egitea edo kasu batzuetan pastillak ere ezin dira hala nola aldatu. Gurpil aldaketak adibidez gehienak Vicente Iriartek aldatzen ditu gururuan.

Hark lana kendu dizu orduan?

Bai, bai, kendu egin dit! [kar, kar, kar...]. Hemen ogia denontzako banatu beharra dago... Ahal dudana bitartean ni hemen egongo naiz eta ikusten dudanean gehiagorako ez duela ematen atea itxi eta kittedu! Besterik ez dago!

Hemendik kanpo publizitaterik egiten al duzu?

Ezer ere ez.

Eta hemen inguruko jendea abiadura handian ibiltzen da autoarekin?

Ez ez, nik uste garai batean azkarrago ibiltzen zirela. Orain ere baten bat badago, batez ere hasieran kotxea hartu berritan... Baina bueno 18 urte ingururekin pareta pixka bat jotzea edo sustoren bat hartzea ongi etortzen da espabilatzeko! [Kar, kar...].

FITXA:

Sotil Garajea

Mekanika eta elektrizitate zerbitzua.

Helbidea: Kale Nagusia, 28 - Betelu.

Harremanetarako: 948 51 33 93.



Lagundu
Mailope!

Mailopeko bazkidea
izan nahi duzu?
mailope@labrit.net



GARAJA Zure behar eta ordutegira moldatuko gara

Mate
erdi eta goi zikloetarako prestaketa

Fisika Inglesa
lengua kimika

948 504 450
648253522

marraketa teknikoak

euskera historia

unibertsitate mailako ikasgaiak

ETORRI ETA
INFORMA
ZATEZU!!!

AUTOZERBITZUA · ARRAINDEGIA
· HARATEGIA ·

PATXI GALARZA
Astelehenetik larunbatara
8:00 - 14:00, 17:00 - 20:00
Igande eta jaiegunetan
8:00 - 14:00

Irurtzun

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

INFORMATIKA ARALAR
LEXUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPORTZEN

634 551 743
infoaralar@gmail.com

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri



Zoriondu itzazu zure lagunak edo senitartekoak
Mailope aldizkariaren bitartez!

KuxKuxean

Jule Salvatierra

*Apirilak 14.
"Zorionak!!!! Maitasun
loreak zuretzako prin-
tsesa. Asko maite
zaitugu!! Aitatxo, amatxo
eta Eder."*



**Jesus Altuna, martxoaren 24an, 62 urte.
Egoitz Oreja, apirilaren 5ean, 7 urte.**
Zorionak Egoitz, artista! Ziztu batean ari zara
haunditzen. Aurki Attuna bezain handia
egongo zara!! Muxu handi bana bioi eta
eutsi irripar horiei!!
Zorionak etxeke guztien partez!



Iraide Aldaregia Balda

*Martxoaren 28an, 2 urte
bete zituen.
Zorionak politte!!! Jarraitu
beti bezain bihurri eta alaia
izaten.
Muxu handi bat etxeke
guztien partez!*



Martin Elordi Tolosa

*Apirilak, 29.
Zorionak aitona!!!!
Ongi pasa zure urtebetetze egunean, han
egongo gara zurekin ospatzeko.
Jarraitu horrela, bizkor eta alaitsu.
Muxu handi bat gure partetik.
Narrea eta Maren.*



- 30



Maren Elordi Ilarregi

*Apirilak, 10
Zorionak prexioxa!! Urte 1 bete duzu!
Egun polita pasa zure familiaz inguratuta.
Muxu handi bat familia guztiaren partez.*



Malen eta Andoitz Estanga Goikoetxea

*Apirilak 19 eta 24, 12 eta 9 urte.
Zorionak!!! Ondo pasa eta muxu handi
bat etxeke partez.*



Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren 20a baino lehen.

apirila

15

Ainhoa Beolak berdintasunari buruzko hitzaldia eskainiko du arratsaldeko 19:00etan Uitziko elkartearen

17

Bilbon eguerdiko 12:00etan egingo den euskal presoen eskubideen aldeko manifestazioa. Goizeko 10:00etan aterako da autobusa Arribeko surtidoretik. Izen-ematea ohiko lekuetan.

23

Bertso-afaria Maialen Lujanbio eta Julio Sotorekin Lekunberriko Kattagorri Elkartearen. Txartelak salgai 20 eurotan, Mitxausean kultur etxean eta Ainhoa, Amairu eta Elosta tabernetan.

30

"Cantando en el tiempo" abesbatzaren kontzertua, arratsaldeko 18:00etan, San Juan Jubilatuen Elkarteak Lekunberri duen lokalean. Sarrera doakoa izanen da.

Apirileko hirugarren astean Garbigailuko xaboia eta leungarria egiteko tailerra euskaraz.

maiatza

5

Literatur solasaldia Xabier Mendiguren idazlearekin, arratsaldeko 18:30etan Lekunberriko Mitxausean kultur etxean.

6

Talde Instrumentalen kontzertua (gauz) - KANTINAN KONTZERTUA

merkatu txikia

SALGAI

- VPO pisua salgai Atallun. Bizitzera sartzeko prest. 90 m²ko bizitza, garajea eta trasteroa. 115.000€. 646179746 (Miren).

Aurtengo intxaurrak salgai! 636856801 (Itziar)

LAN BILA

- Lekunberri emakume bat prest edozein lanetan aritzeko: etxe lanak, pertsonen zainketa, etxebizitzaren garbiketa etab. Emilia Dimitrova: 948 60 48 93 / 679 053 368.

ALOKAIRUAN

- Pisua alokatzen da Bete-lun, bizitzera sartzeko prest. 80m²-ko pisua altzariz hornitua. 690006283 (Mila).

Bajera bat alokatzen da Bete-lun. 690006283 (Mila)

ADI!

Merkatu Txikian iragarki bat jarri nahi baduzu idatzi mailope@labrit.net-era. Publizitate eskariak bi hilabetez egongo dira jarrita, ondoren kontrako abisurik jasotzen ez badugu kendu egingo ditugu.

LARRAUN-LEKUNBERRIKO FRONTENIS TXAPELKETA

Hasiera APIRILAK 29.

Eman izena apirilaren 20a baino lehen. 20 euro bikotea. Bilera: Apirilaren 21ean, 19:00tan, kiroldegian.

SARIAK:

1. bikotea: 200 euro.
2. bikotea: 100 euro.

Informazio guztia: kirolmankomunitatea@gmail.com



SASTRAKA
auto 4x4

Ibilgailuen Mekanika Orokorra
(azterketak, gurpilak, olio aldaketak,...)

Baita Todoterrenoetan Espezializatua ere
(prestakuntzak, homologazioak, erreformak,...)

Industrialdea, 9
31870 Lekunberri

948.60.48.06 Inigo
www.sastraka4x4.com

M. Angeles Urrizalki

iragarkiak, berriak, eskelak...

Diario Vasco eta Diario de Navarrako Korrespontsala

948513056
699179437



aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890

948 513 083
696 732 290

aitzberri@hotmail.com

Erosi zeurea
12 euroren
truke!

ENE KANTAK

Oneka Marrazoaren
ikusbizuna orain DVD-an.



Mailope aldizkariaren aldeko
proiektua.



Informazio gehiago: www.enekantak.com